

# SANTAMASAK 2019

## OINARRIAK ERAKUSLEIHO LEHIAKETARAKO

---

1. Lehiaketa honetan parte hartu dezakete Arrasateko komertzio eta zerbitzu guztiek, ostalaritzakoek barne.
2. Izena emateko epea bukatuko da 2019ko abenduaren 14a (barne).
3. Lehiaketan parte hartzeko, izena eman beharko da. Izena hemen emango da: Udaleko Toki Garapenaren sailean (943 25 20 17 – nlazpiur@arrasate.eus), BAZen, udal webgunean edo Merkataritzako bulego teknikoan (943 79 30 90 – aitziber@debagoiena.eus).
4. Erakusleihoak jarrita egongo dira abenduaren 15etik aurrera, eta gutxienez, abenduaren 31 arte egon beharko dira.
5. Lehiaketaren sariak erabakitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - ) Erakusleihoan Santamasetako giroa islatzea
  - ) Erakusleihoan Gabonetako giroa islatzea
  - ) Euskararen erabilera
  - ) Irudimena
  - ) Originaltasuna
  - ) Publizitate mezuaren eraginkortasuna
  - ) Ingurumenaren zaintza eta errespetu balioak
  - ) Emakumeen eta gizonetzkoen artean berdintasuna errespetatuko da
  - ) Derrigorrezkoa izango da erakusleihoan jartzea dendan salgai dauden produktuak
6. Sariak honela banatuko dira:
  - ) 1. saria: plaka eta 600 €
  - ) 2. saria: plaka eta 400 €
  - ) 3. saria: plaka eta 300 € (Ibai-Artek emana)
  - ) Auzoko erakusleiho onenaren saria: plaka eta 300 €
  - ) Herritarren saria: plaka eta 300 €
  - ) Herritarren saria bozkatzen dutenen artean zozketatuko dira bost bono, 100 €koak, gastatzeko Arrasateko edozein komertziotan.
7. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta hedabideen bitartez jakinaraziko da bere garaian. Bestalde, epaimahaiaren lana errazteko, eskatzen da erakusleihoak argizatuta edukitzea lanegunetan, dendak ixteko ordura arte, eta jaiegun eta bezperetan, gaueko 21:00ak arte. Sariak banatuko dira 2019ko abenduaren 20an, 17:00etatik aurrera.
8. Epaimahaiak aukera izango du saririk hutsik uzteko.

9. Epaimahaia honela osatuko da:

- ) Toki Garapenaren saileko edo eta batzordeko kide bat
- ) Aditu bat apainketan, diseinuan edo eta eskaparatismoan
- ) Merkatarien elkarteko kide bat

10. Bozketa telematikoa egingo da udal webgunearen bitartez, eta parte hartu dezakete herritar guztiek.

11. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri hauek onartzen dira.